

Saldias

Aurkibidea

Udalerria: Saldias

Sarrera



Nafarroako ipar-
mendebaldeko herria,
Malerreka eskualdekoa.
Udalerria Urrutiña eta Saldias
auzoek osatzen dute.
Mugakide dituen herriak:
Zubieta, Beintza-Labaien,
Eratsun eta Basaburu
Handia.

- **Biztanleak:** 118
- **Euskaldunak:** %96,72

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **31**
- Transkribatutakoak: **0**

- Audioak: **0**
- Bideoak: **25**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Ixabel Baleztena Baleztena (1947)



Arretxea etxean jaioa. Aita etxe bereko semea zen eta ama Labaiengoa; biak baserritarrak. Hiru ahizpatan zaharrena da Ixabel; Arretxeako etxeakoandrea dugu, eta dioen moduan, *nekazarikuk* dira, hau da, laborariak.

Joxe Mitxeo Baleztena (1944)



Saldiasen jaioa, Olasoa laborantza-etxean, eta Jurdanera ezkondua. Zortzi senidetan zazpigarrena. Bi gurasoak saldisarrak. Aita Frantzian bizi izana, oihanera lanera joana. Joxe, gaztetan, Matxinbentan piñu-monteran lanean ibilia, bere mandoarekin, mutil saila bere kargu zuela. Hogei urtetan Kaliforniara artzain ia lau urterako joana. Europara itzulita, berriz ere oihanera lanera, Frantzia aldera, zerratzeko egurra ateratzera (Tourmalet, Aspin eta abarretan). 27 urte zituela atzera Saldiasera itzuli eta gerora zerrategia jarri zuen bertan, aurretik hartutako eskarmentua baliatuta. “Gaueko lanean” ere ibilia. Zurgina izaki, etxe eta baserrietako zurajearen gorabehera eta izenak ederki ezagutzen ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ama neskame Iruñean, aita Frantzian (SAL-003/004)

Olasoa etxean jaioa da. Labrantza-etxea zen. Ezkongabe zela, ama neskame egon zen Iruñean, Oiartzun etxean; aita, berriz, Frantzian mendian. Aitaren hiru anai Ameriketara joan ziren. Morroi joateko ohitura zegoen, jan alde. Gazura irakin eta gaztanbera egiten zuten. Txerria ere izaten zuten etxeetan.

2. Gerraostean gurasoek ogia egin eta saldu (SAL-003/005)

Aita kontrabandoan ibili zen, gerra ostean. Amak ogia egin eta saldu egiten zuen. Patata nahasten zion oreari. Aita salatu egin zuten, ogia saltzeko

lizentziarik ez izatearren. Anaia soldadu zela okin lanetan aritu zenez, etxeratutakoan okindegia jarri zuten etxekoek.

3. Errazionamendua eta herriko kartzela (SAL-003/008)

Zortzi senide izan arren, goserik ez zutela pasa esaten du. Errazionamendua ezagutu zuen. Kartzela non zegoen azaltzen du. Azukre beltza banatzen zuten.

4. Gerraostean, txerria hiltzea galarazita (SAL-003/009)

Bera ume zela, txerria hiltzea galarazita zegoen. Orduan, ezkutuan hil zuten. Baserrietako jendeari hainbeste kendu eta gero, errazionamenduan zerbait eman beharra izango zutela uste du. Amerikarrek esne hautsa eta antzekoak banatzen zituzten.

5. Gerraosteko kartoizko dirua (SAL-003/010)

Dirurik ez eta kartoizko txartelekin ordaintzen zuten gerraostean. Oso kopuru txikietan erosten zuten bezeroek. Doneztebeko banketxean egiten zuten trukea. Miseria egoeran, norabait joan behar izaten ziren.

6. Ameriketatik bueltan, Ingalaterratik pasata (SAL-003/014)

Ameriketan artzain zegoela, oporrak zituenean, edonora joaten zen autobusez. Euskaldunekin topo egin zuen eta etxerako bidea hartu zuen, Ingalaterran eta Parisen barrena.

7. Ameriketatik bueltan, Paristik etxerainoko bidea (SAL-003/015)

Parisera iritsi eta hilabeteko greba orokorra tokatu zitzaion parean. Gazte batzuen laguntzaz, Bordelera iritsi zen eta handik Hendaiara. Gauez pasatu zuen muga anaiarekin.

8. Soldadutzara ez joateko tranpak (SAL-003/017)

Pasaportearekin egindako tranpak kontatzen ditu, soldadutzara ez joateko egindakoak.

9. Frantzian oihanean lan arriskutsuetan (SAL-003/018)

Frantzian oihanean lan egin zuen, zerrategirako. Helikopteroarekin nola lan egiten zuten kontatzen du. Turmalet inguruan ibiltzen zen lanean. Oso lan arriskutsuak egiten zituzten.

10. Teilatuko egurren izenak (SAL-003/022)

Teilatuko egurren izenak. Zurajea, pilarea, uztarri-motza, karrerak, frontalak... zer diren azaltzen du.

11. Teilatuko egurren izenak. Kabilak eta gapirioak (SAL-003/023)

Egurak elkartzeko, zeta bat egin eta iltzeekin josten zituzten. Lehenago, egurrezko kabilak erabiltzen ziren. Gapirioak zer diren azaltzen du.

12. Egurraren bihotzaren hatsa (SAL-003/024)

Teilatuetako egur nagusia ez lehertzeko teknika azaltzen du. Egurraren bihotzak hatsa behar izaten duela dio; horregatik lehertzen dela. Gipuzkoako hainbat etxetako pilareak zulatuta ikusi izan ditu.

13. Teilatuko egurren izenak. Solibak eta latak (SAL-003/025)

Teilatuko egurren izenak. Solibak eta latak zer diren azaltzen du. Oholak egiterakoan ez lehertzeko teknika azaltzen du.

14. Teilatuko egurren izenak marrazkian (SAL-003/027)

Teilatuko egurren izenak. Marraztutakoari izenak ipintzen dizkio. Gailurra, gapirioak, "sinelak" edo uztarriak, karrerak, aspazaldia, astapetrala, pilareak...

15. Usategiak baserrietan (SAL-003/029)

Baserrien paretetan zuloak egiten zituzten usoentzat, gero haien arrautzak edo txitak jateko.

16. Egun berezietan, kantatzeko ohitura (SAL-003/032)

Urte zaharretan eta San Joanetan familia osoa batzen zenean, kantuz aritzen ziren. "Maritxu nora zoaz", "Boga-boga", "Markesaren alaba"... abesten zituzten.

17. Ikasketak utzi beharra (SAL-003/034)

Sei urterekin eliz mutil hasi zen eta zazpi urterekin meza abesten zuen latinez. Ikasketak egin zituen bi urtez eta utzi egin behar izan zuen, gurasoek dirurik ez zeukatelako.

18. San Juan eguneko himnoa (SAL-003/036)

San Juan egunean, himnoa abesten zuten elizan, latinez, prozesioa eginez.

19. Larrain-dantza eta zortzikoa egiteko ohitura (SAL-003/037)

Jota dantzatzen zuten. Larrain-dantza egiten zuten dantzariak, zapiekin, baita zortzikoak ere. Nagusiak ere izaten ziren dantzan.

20. Bestaberrietako ohiturak (SAL-003/038)

San Juanetan eta bestaberrietan ere dantzatzen zen larrain-dantza. Ardoa, ogia eta gazta ateratzen zituen herriak bestaberrietan. Eratsunen mahatsa ateratzen zuten bestaberrietan. Mutil koxkorrek ere ardoa edaten zuten.

21. San Juan eguneko himnoaren doinua (SAL-003/041)

San Juan eguneko himnoaren doinua abesten du.

22. Erdaraz ondo ez egitearren, burla (SAL-003/043)

Zigorren bitartez ikasi zuen idazten. Hamabi urterekin erdaraz gutxi zekiela dio. Erdaraz ondo ez egitearren, burla egiten zioten.

23. Ikasketak egiteko aukera bakarra, seminarioan (SAL-003/045)

Seminarioa ikastera joaten ziren gehienak ikasketak egitera joaten ziren, ez apaiz izateko. Politikan ibilitako asko apaizak izan zirela dio.

24. Errege bezperako gaiztakeriak (SAL-003/047)

Koplak inauterietan eta erregetan abesten zituzten. Ohiturak galduz joan ziren. Errege bezperetan joareekin kantuz eta gaiztakerian ibiltzen ziren.

25. "Olentzero" kanta (SAL-003/048)

Umetan olentzeroren kanta abesten zutela gogoan du. Kanta abesten du.

26. "Belenen sortu zaigu jainkua" eta "Zein polita zein ederra" kantak (SAL-003/049)

"Belenen sortu zaigu jainkua" kanta abesten du. "Zein polita zein ederra" gabon kanta abesten du. Eguberrietan abesten zirela dio.

27. Olentzeroren kanta, adarra jotzeko (SAL-003/050)

Olentzeroren kantan, "ai gure tripandia, gure Prantzisko, gure Prantzisko" esaten zen, edo beste baten izena, adarra jotzeagatik.

28. Kontrabandoa: portugaldarrak mugaren bestaldera (SAL-003/056)

Portugaldarrak ezkutuan mugaz bestaldera pasatu zituen bati, kamioiak su hartu zionekoa kontatzen du.

29. Kontrabandoa: portugaldarrei egindako lotsagarrikeriak (SAL-003/057)

Rosa Arburua historialaria aipatzen du, "Gaueko lana"ren egilea. Batzuek ez dute dena kontatu nahi izaten. Portugaldarrekin lotsagarrikeriak egiten zirela dio. Gazteak, familiak... pasatzen zituzten.

30. Kontrabandoa: klinika baterako makinak (SAL-003/059)

Mugan lagunak zituzten eta hala lortu zuten behin klinika baterako makinak pasatzea. Bere anaiak taxiarekin familia portugaldar bat pasatu zuenekoa kontatzen du.

31. Kontrabandoa: muga pasatzean hildakoak (SAL-003/061)

Kontrabandista askok sekretuan gordetzen dituzte konturik gogorrenak. Bidasoa gurutzatzen hainbat lagun hil izan dela eta dutela dio. Kontrabandoaren bidea berriki ezagun egin dutela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com